

2022
XIX

LAN ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO ARGAZKI LEHIAKETA



Eta zuk, zer diozu?

Mutualiaren Prebentzio-ahokularitzak, **LANEKO ARRISKUEI BURUZKO XIX. ARGAZKI LEHIAKETA** abian jarri du. Lehiaketak, bere balio artistikoagatik bai prebentzioaren egungo egoera islatzeagatik, gizartearen segurtasunaren gaineko kontzientzia hartzeko eta sentsibilizatzeko lagungarriak gerta daitezkeen argazkien egileak saritu nahi ditu.

Sariak, dirutan, honako hauek dira:

- **Lehen saria:** 1.200 €
- **Bigarren saria:** 900 €
- **Hirugarren saria:** 600 €

Argazkien **gaia** Laneko Arriskuen Prebentzioa izango da, eta Estatuko mugen barneko egoera bakarrik agertuko dute. Argazkian gaiaren ezaugarriak irudikatu beharko dira eta, horretarako, arrisku egoerak edo jardunbide egokiak islatuko dira. Azken horiek balorazio positiboagoa jasoko dute.

Argazkiek **originalak eta parte-hartzaileak eginak** izan beharko dute. Ezin izango dira aldeztatik argitaratutako edota beste lehiaketaren batean saritutako argazkiak aurkeztu.

Argazkien formatuari dagokionez:

- Argazkiak JPG formatu digitalean bidaliko dira.
- Irudiek gutxienez 6 megapixeiko bereizmena izan behar dute.
- Fitxategiaren tamaina 10 MB-koa izango da gehienez ere.

Argazkiak helarazteko bidali diezaguzu, posta bat honako helbide elektronikora: **prebentzioa@mutualia.eus** Honako hauek erantsi beharko dira:

- Argazkiaren artxiboa, egilearen izen-abizenak adierazita.
- Gure web orrian aurkitu dezakezun "Deskribapen orria" behar bezala beteta eta egilearen izen-abizenak adierazita.

Argazkiak aurkezteko epea 2022ko martxoaren 31ean amaituko da.

Epaimahaiaren erabakia behin betikoa eta apelaezina izango da, eta 2022ko apirilaren 28an ezagutaraziko da MUTUALIAREN web orrian eta sare sozialetan.

Oinarri osoak web gunean aurki ditzakezu: **www.mutualia.eus**

Edozer zalantza edo kontsulta izanez gero, idatzi: **prebentzioa@mutualia.eus**

**HAR EZAZU
PARTE!**

Partekatu lankideekin

